

A23

Jaun Zerukoai emaiten jagot...

Hitzak ondo ulertzen diren arren, ez da erraza poema honen haria jarraitzea, batetik, erreferentziaren bat falta zaigulako (azaldu ez den zerbaiti buruz ari dira), eta, bestetik, zaila delako jakitea noiz ari den pertsonaia bakoitza hitz egiten. Dirudenez, poeta gaztearen eta Elena *dama galantaren* arteko elkarrizketa da. Gure interpretazioaren arabera, mutilak poema bat idatzi du neskaren inguruan, ziur aski haren kapa bat aipatuaz; neskari ez zaio batere gustatu eta gezurtizat jo du poeta; baina mutilak ere kontua argitzeko gogoia du, zintzo jokatu duela uste baitu. Gainera, neska limurtzen ahalegintzen da, inguruetakoa ederrena dela esanez; neskak, ordea, ez du halakoetarako gogorik, eta mehatxu egiten dio, esanez berak ere idatz ditzakeela koplak. Mutilarenak dira lehenengo hitzak.

<1195r>	—Jaun Zerukoai ¹ emaiten jagot ² oi ³ asko geraziarik, ⁴ deseo neben okasio bat zerren nagoan jakinik. ⁵	
	Nik orain diot inox ez zala ⁶ ipuitzarrik, guzurrik, ⁷ zegaiti gauza eginik ezta munduan sekretokorik.	5
	Nik hau honela esaterako ⁸ asko da errazoarik; oi gehiago zufrietako ⁹ eztot nik pazenziarik.	10
	—Poeta gazte jakinduna, ¹⁰ ze zaos engainadurik ¹¹ zu pagatzeko ¹² faltako dala nigan entendimenturik. Egin dozuna egiterako ¹³ ez dozu errazoarik,	15

¹ *Zerukoai*: ‘Zerukoari’.

² *emaiten jagot*: ‘ematen diot’.

³ *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

⁴ *asko geraziarik*: ‘eskerrik asko’.

⁵ *deseo neben okasio bat / zerren nagoan jakinik*: ‘zeren etorri baitzait desio nuen aukera bat’.

jakinik: ‘niretzat izanik, niretzat delarik’; *jaki-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, **edin* aditzaren aldaera bipertsonala (NOR-NORI) baizik ez da.

⁶ *zala*: ‘zela, dela izan’.

⁷ *ipuitzarrik, guzurrik*: Bi interpretazio izan daitezkeela uste dugu: 1) Testuan eman dugun puntuazioarekin aditzera eman dena: *ipuitzarrik* eta *guzurrik* sinonimoak balira bezala. 2) Bi hitzen artean komarrik ezarri gabe (*inox ez zala ipuitzarrik guzurrik*,) aditzera emango litzatekeena: ‘inoiz ez zela ipuitzarrik gezurrezkorik’; bigarren interpretazio honetan, *ipuitzarra* ‘atsotitza’ litzateke, eta bat egingo luke gaztelaniazko zenbait atsotitzekin (“Cien refranes, cien verdades”, “No hay refrán que no diga una verdad, y una no, es porque dice dos”, “Quien habla por refranes, es un saco de verdades”, “Refranes que no sean verdaderos y febreros que no sean locos, pocos”).

⁸ *esaterako*: ‘esateko’.

⁹ *zufrietako*: ‘sufritzeko’.

¹⁰ *jakinduna*: ‘maltzurra’.

¹¹ *ze zaos engainadurik*: ‘ez zaitez egon engainaturik’.

¹² *zu pagatzeko*: ‘(pentsatuaz) zuri ordainak emateko, zuri (merezi duzun moduan) erantzuteko’.

¹³ *egiterako*: ‘egiteko’.

zerren nik zuri eman eztizut hartako okasiorik,	20
ez gehiago ¹⁴ nik egin ez dot zure basoan egurrik; ¹⁵ sekula barriz nik ez negian oi zure kontra berbarik.	
—Obra barri bat ei ¹⁶ daukazu nigaiti konponidurik; ¹⁷	25
linda damea, ¹⁸ asko deutsut nik haregaiti ¹⁹ eskerrik. ²⁰ —Mesedeori ²¹ serbietako eztot nik intereserik. ²²	30
—Horretan, bertan ²³ oi behar dozu geratu satisfetxarik. Honinbatenaz ²⁴ adi nazazu, badozu sentimenturik;	
zure entendimentua bego gutxitan iratzarrik. ²⁵	35
Bere burua oi behar leuke ²⁶ efini korrejidurik lenaengo, ta gero juzgadu bestegan balitz tatxarik,	40
edo, izanagaiti bere, eugi enkubridurik. Hau egiteko zugan asko da, dama galanta, kausarik,	
zuri egiten ez jatzun gero ²⁷ ezertan agrabiorik.	45
—Errazoarik ez daukazu niri ifinten ²⁸ koplarik. Ene kapea oihal ona da, neure diruak kostarik,	50
inoenari ezteutsala ²⁹	

¹⁴ *ez gehiago*: ‘ez eta ere’.

¹⁵ *nik egin ez dot / zure basoan egurrik*: ‘ez dut zurekin anker jokatu’, edo, agian, ‘ez naiz zure arazoetan sartu’.

¹⁶ *ei*: ‘omen’.

¹⁷ *nigaiti konponidurik*: ‘niri buruz konponidurik’, eta ez ‘nik konponidurik’.

¹⁸ *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa; euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu.

¹⁹ *haregaiti*: ‘haregatik’.

²⁰ *asko deutsut / nik haregaiti eskerrik*: ‘eskerrik asko ematen dizut nik haregatik’.

²¹ *Mesedeori*: ‘berori’, gaztelaniazko ‘(su, vuesa, vuestra) merced’ alegia.

²² *intereserik*: ‘interesik’.

²³ *bertan*: ‘berehala’.

²⁴ *Honinbatenaz*: ‘honenbestez’.

²⁵ *zure entendimentua bego / gutxitan iratzarrik*: ‘izan burua zabalik, nik esaten dizudana onartzeko’.

²⁶ *Bere burua oi behar leuke*: zutik berorira aldatu da, solaskidea aldatu gabe.

²⁷ *egiten ez jatzun gero*: ‘ez baitzaizu, ez zaizunez’.

²⁸ *Errazoarik ez daukazu / niri ifinten*: ‘Errazoarik ez daukazu niri ipintzeko’.

	bapere inbidiarik. Ene kapaak ³⁰ egon doaz ³¹ hain ondo toleztadurik, nola batzuen saboiana, ³² 55 gauza usaiz beterik. ³³ Oita kapa bat emunagaiti ez nax geratu pilotxik, ³⁴ inori emun bajagot bere, ez nago damu jakinik. ³⁵ 60 —Ene herriti oita zurera badago bidazidorrik; oi haetati paseatzeko eztot ardura lagunik. ³⁶
<1195v>	Bide hartati iramo ³⁷ badot 65 zure kalera gezirik, ³⁸ ene laztana, oi utra ³⁹ dago galanto enpledurik. Zure lekuan ⁴⁰ ederra nor dan, zeur ezpazara, ez dakit: 70 zegaiti inor ederra dala gurean ez da famarik. Linda damea, ni neurau nago galanto informadurik, zure lekuan ez oi dala 75 ederrez konfradiarik. ⁴¹ Donzeila eder juzgaetako ⁴² asko behar da gauzarik, onestidade parebagea fundamentutzat harturik. 80 Malpekado! ⁴³ Fruta ⁴⁴ hau dago lekuorretan ⁴⁵ galdurik;

²⁹ *ezteutsala*: -la adberbiala.

³⁰ *kapaak*: ‘kapak’.

³¹ *egon doaz*: ‘egon ohi dira’.

³² *saboiana*: Cf. *DAut*, s.v. *saboyana*: “Ropa exterior de que usaban las mugeres, a modo de basquiña abierta por delante”.

³³ *gauza usaiz beterik*: Esapidearen esanahiaz ez gaude seguru, baina baliteke ‘gustu oneko gauza baita, dotoretzat hartzen baita’ bezalako zerbait izatea. *Usai* izena ‘usain’ dela interpretatu dugu, ‘usaia, ohitura’ adiera baztertu ondoren; izan ere, *usaia* Iparraldeko tradizioko hitza izateaz gain, ez genuke espero berezko -a gabe agertzea.

³⁴ *pilotxik*: ‘biluzik’.

³⁵ *damu jakinik*: ‘(niri) damuturik’.

³⁶ *eztot ardura lagunik*: ‘ez dut nahi lagunik, ez zait interesatzen inork lagun egitea’.

³⁷ *iramo*: ‘jaurtiki’.

³⁸ *iramo badot / zure kalera gezirik*: ‘zure maitasuna lortzen saiatu banaiz’; gezia jaurtitzea maitasunaren gezia jaurtitzea litzateke.

³⁹ *utra*: ‘oso’.

⁴⁰ *lekuan*: ‘herrixkan’.

⁴¹ *ez oi dala / ederrez konfradiarik*: ‘ez dela aurkitzen neska ederrez osaturiko talderik, ez dagoela neska eder askorik’.

⁴² *Donzeila eder juzgaetako*: ‘(norbait) dontzeila edertzat hartzeko’.

⁴³ *Malpekado!*: ‘arraioa!’; gaztelaniazko harridura-esapidea.

⁴⁴ *Fruta*: Emakumeaz ari dela dirudi.

limosneraok ⁴⁶ salzaen dabe lekuan beste frutarik. Honinbatenaz egon gura dot	85
aldi honetan exilik, zegaitiarren ⁴⁷ eztit emaiten igitaiak lekurik. ⁴⁸ —Bada nipere ⁴⁹ jarri badagit sekula barriz koplarik,	90
poeta gazte, doña Elena ez nax egongo exilik; hau nik honela esaterako asko dot errazoarik. Berorren ⁵⁰ serbitzaria nax ta ez niri barriz burlarik.	95
Fin.	

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A23 – Jaun Zerukoai emaiten jagot... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago

⁴⁵ *lekuorretan*: ‘herrixka ziztrin horretan’.

⁴⁶ *limosneraok*: ‘andre limosnagileak, limosna-banatzaileak?; adi, *limosnera* ez baita eskean dabilena, limosna banatzen duena baino. Ez dugu inon aurkitu limosnagileek ezer saltzen dutenik, baina, zentzu hertsian, hau ulertu beharko genuke: ‘neska hau ez dute eskaintzen herri txiki horretan, eta, limosna banatzen den bezala neskak banatzen/saltzen dituzten emakumeek hau barik beste neska batzuk eskaintzen dituzte’.

⁴⁷ *zegaitiarren*: ‘zergaitik, zeren eta’.

⁴⁸ *eztit emaiten / igitaiak lekurik*: *Leku eman* adierazpideak ‘aukera eman’ esan nahi du, baina ez dakigu seguru zer esan nahi duen igitaiak esaldi horretan; baliteke adieraztea hitz egiteko aukera moztu diola.

⁴⁹ *nipere*: ‘nik bere, nik ere’.

⁵⁰ *Berorren*: Errespetuzko tratamendua.